

Nafarkaria

Nafarrorako gehigarria / Ostirala, 1992ko uztailak 17/II. urtea / 33.zenbakia

Normaltasunerako bidean



Asteazke-
nean, jadanik
hasi zen San-
ferminek utzi
dituzten arras-
toen bilketa
eta garbiketa
luze eta neko-
soa, baina
ahaleginak
ahalegin, kos-
ta egingo zaio
hiriari aurpegi
garbia berres-
kuratzea. As-
teazkenetik
bertatik, loa
eta marrantak
uxatu nahian
batzuk, lozo-
rro sakonean
murgilduta
besteak,
Iruñea hartzen
ari da ezarian
ezarian urte
osoan zehar
izango duen

martxa, nahiz eta askok egun hauek oporrak hartzeko aprobetxatuko dituzten. Hori dela eta, denda itxiak, ibiltzeko toki zabalak nonnahi, eta horrelako lasaitasun arraroa nagusitu da herriaz, esnatuta egon baina altxatu nahi ez bailuen. Irudi aski adierazgarria albokoa: pilaketa guztien tokia, zezen plazarako pasabidea, hutsik. Ez da askok nahiko luketen 'normaltasuna' egun hauetakoa, baina dudarik gabe, Nafarroako hiriburua, beste urtebetez, ohizko hiri bat izango da hemendik aurrera.

Barnean

BAZTANDARREN BILTZARRA



Asteburu honetan
izanen da Elizondon
29. edizioa / VII

AMAIURKO BATAILA



Pedro Esarte
historialaria biharko
omenaldiaz mintzo / VIII

Gure aukerak

ANTZERKIA



Ilargi antzerki taldeak 'A zer irriak' lana antzetzuko du uztailak 18 Adiotzen eta 19 Espartzan (Zaraitzu). Ekitaldi hauek Nafarroako Gobernuak bostehun biztanle baino gutxiago duten herrietarako antolatatu duen programaren barruan sartzen dira. 'A ze irriak' Iosu Iragik zuzentzen duen lanean errementari baten bizitzaren inguruan sortutako kontuak eta aburuak agertzen dira. Emanaldia euskaraz eta erdaraz antzetzuko da.

ZINEMA



'**Asterix gladiadorea**' pelikula ikusgai izango da Adiotzen uztailak 18, larunbata. Era berean, uztailak 19, igandea, beste filme bat botako dute Espartzan, 'No me chilles que no te veo', alegia. Bi zinema emanaldi hauek, Nafarroako Gobernuak aurtengo udarako prestatu duen 'Correpueblos' programaren barne daude. Pelikulak kanpoan botako dituzte, eta azken egun hauetako eguraldi ona kontutan hartuz, arrakastatsuak izango direla esan daiteke.

ERAKUSKETAK



Eulalia Abaituaren 'Iraganeko euskaldun emakumeak' argazki bilduma Lekunberriko Mitxasenea Kultur Aretoran ikusgai egongo da uztailak 16 eta 27 bitartean. Eulalia Abaitua joan den mendeko argazkilari bilbo-

ERRAN DUTE

Gizonezkoek emakumezkoek baino hobeto korritzen dute entzierroa».

Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea

«Indurain kirolari osoa da urte guztian zehar, **Le-mond**, hilabete bakar batean».

Miguel Etxabarri
Banestoko zuzendaria

«Emazteak **Alli** lehendakariarekin dantzatzen ez badu ospitalera eraman beharko dut».

Iruindar bat

«Ez dut publizitate gehiago behar, argazki askototan agertzen bait naiz».


Maribel Beriain.
UPNko zinegotzia

Urbanasan barna

Iturmendiarrak Santa Marinako ermitari bisita egingo diote bihar larunbata, hilak 18, bertako jaien egitarauaren barruan. Urtero bezala, meza nagusia izango da ermitan, eguerdian, eta ondoren bazkaria eta bazkaloste animatua egiteko parada izango da, trikitilri, soinulari eta guzti.

Igandean, altsasuarrek Bargagaineko gurutzera igoera egingo dute, urtero bezala hauek ere, eta bi ekitaldi hauek direla eta, Urbanasan barna ibilaldi polita egiteko aukera dago asteburu honetan.

Santa Marinatik Bioitzako kanpinaren arteko bidea nahikoa garbia da, eta pagadi ederren artean da biderik ohizkoena. Hala ere, bargak berak agintzen duen bidetik ere egin daiteke, eta Burunda gainetik eskaintzen duen ikusmira dastatu. Erdian aurkituko dugu 60ko hamarkadan altsasuarrek mando baten gainean igotako gurutze erraldoia, berta-



ko olan egindakoa, gazte askori esker, eta hortik Bioitzako kanpin berriraino edo Lizarra eta Olazti arteko erreperideraino ordu

erdiren bat baino ez dago. Gurutzetik ere zuzen-zuzen Altsasuraino jaisteko aukera badago, ongi markatua bait dago bidea.

koen teknikarekin egindakoak dira, txuri beltzean eta 44x107 milimetrotako neurria dute.

MUSIKA



'**Decline**', 'Human Alert' eta 'Hel No' hard-core musika taldeen kontzertua entzungai izango da, uztailak 18, larunbata, gaueko hamaiketara Altsasun. Igandean, uztailak 19, Altsasuko gaztetxean 'Gunjah', 'Desde

Berlin' eta 'Muy fuertes' taldeek joko dute, eta musika gogorra eta zaratatsua nagusituko da.

'**Mister Saguak**', 'Skunk' eta 'Burlesk' taldeek Beran joko dute, uztailak 18, larunbata, gaueko hamaiketara 'Alzus' aretoan.

'Flitter', 'Nahia', 'Sunsum Corda' eta 'Moho' taldeak uztailak 18, larunbata, gaueko hamarretan entzungai izango dira Lizarrako zezenplazan.

ASTEKO PERTSONAIAK

Miguel Indurain



Txirrindularia

A tarrabiarrak ezinezkoa izan du sanferminetan partehartzeari, baina, dena den, nafarrek ez dute ahaztu eta jaietako pertsonai nagusi bihurtu dute. Egun hauetan edozein lekutan eta edozein momentutan Indurain gogora ekartzen zuten ohiauak, abestiak edo eta ekintza berezi eta bitxiak gauzatu dira. 'Pobre de miak', sanferminak agurtu zituenan ere, «Aupa Indurain!» garraxiak entzun ziren nonnahi. Baina txirrindulariak ere herrimina sentitzen zuela erakutsi zuen, uztailaren 6an, txupinazoarekin batera sanferminetako lepoko gorria jantzi bait zuen.

Cesar Rincon



Toreatzailea

Aurtengo Zezen ferriako toreatzaile bikainena izan da Cesar Rincon colonbiarra, bi zezenketa jarraituetan arrakasta handia lortu bait du Iruñeko plaza zailean. Lehenengoan, Sepulveda zezenen aurrean hain zuzen, bi belarri eskuratu zituen, Ortega Cano eta Espartacok bezala, eta azkenean hirurak atz nagusitik atera ziren, lepotik eramanda. Honelako faena bat erreplikatzeko ezinezkoa zirudien baina Rinconek aurrikuspen guztiak hautsi zituen eta bigarrenengo zezenketan beste belarri pare bat lortu zuen, hartan Domequ-eko markesaren zezenekin.

Jon Idigoras



Politikaria

Jon Idigorasak sanferminetako azken eguna igarotzeko aukera eduki zuen, Jose Ramon Aranguren HBko zinegotziaren gonbiteari esker. Zornotzarra zezenzale amorratua denez, zezenekin zerikusirik zuten ekitaldi guztietan parte hartu zuen, eta horrela, entzierrotxo, entzierroa, apartadoa eta zezenketa ezagutu zituen. Jaiak hobeto ezagutzeko asmoa zuenez jendearen artean nahastu zen, peñekin bereziki. Toreatzaile izandako garaiez gogoratzeaz gain, jai giro herrikoia bizi zuen, eta hau dela eta, hurrengo urtean ere etorriko dela iragar daiteke.

'**Los Van Van**' Tuterako Beterri peñak antolatutako kubatar musika emanaldia uztailak 18, larunbata, gaueko hamaika t'erdietan hasiko da zezenplazan. Karibearar doinu alaiak eta kalitate handikoak beraz, larunbat gau bero baterako.

MENDI IRTEERAK



Bargagaineko XII. igoera uztailak 19, igandea izango da aurtun. Sakanako mendigoizaleek motxila hartu eta ibilbide honi ekiteko aukera ezin hobea edukiko dute, batez ere eguraldiari buruz egin diren aurrikuspenak kontutan hartuz, igandeko, eguraldi argia eta eguzkitsua espero bait da. Bargagainera egiten den hamabigarren igoera izango da aurtengoa eta urtero bezala tontorrera iritsi bezain laister hamaiketako goxoa dastatzeko aukera izango dute mendizaleek.

IKASTAROAK



Ernest Hemingway-ri buruzko nazioarteko mintegia burutzen ari da egunotan Iruñean, idazle amerikarraren izena daraman elkartearen eskutik. Mintegia asteazkenean hasi zen, eta heldu den astelehenera arte luzatuko da, Nafarroako Museoa. Elkarte honen helburua idazlearen lana eta bizitzari buruzko ikerketak zabaltzea da, eta aurretik Hemingway-rekin lotura izan duten beste hiritan egin izan dira antzeko mintegiak.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratia saioa musika. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Sanferminen ondotik

HOBERENA

Giroa. Sanfermin hauetan as- tean zehar giro ederra izan da bai kaleetan barna bai antolatu diren ekitaldi guztietan eta tabernetan ere. Lasai ibiltzeko modukoa, pilaketarik gabekoa. Eguraldiak ere dezente lagundu du horretan, lehendabiziko egunetan eguraldi txarra iragartzen bazen ere, ge- roago, egunak pasa ahala, giro aproposa izan bait da egunez zein gaeuz. Beroak ere ez du sobera jo, eta soilik asteburuan —nola ez!— somatu dira inbasioak eta horrek dakartzan ondorio guz- tiak. Datuek ere jende gutxiago azaldu dela iragarri dute —azken urteetan bezalatsu— eta dendari eta saltzaileak kexu agertu badira ere, festaz gozatu dutenek, dudar- ik ez, eskertu dute.

Garbiketa lanak. Goizean goiz karrikak nola zeuden ikusi ondoren, eskertu baino ezin da egin FOCSA enpresaren lana, euren betebeharrak izanda ere. Koadrila guztiek hiriko txoko gehienak aski ongi garbitu dituz- tela esan beharra dago, eta egun guzti hauetan pilatzen den zikin- keria kontutan hartuz —datuei hobeki ez erreparatzea—, emai- tzak agerian zeuden, lanean hasi eta hiru bat ordu beranduago. Pa- ratutako komunak ere toki onean eta nahikoa ziren, zenbait lekutan —Burgoetako plazan, kasu— urri suertatu baziren ere. Gainera, urtetik urtera, erabiltzeko ohitura gero eta handiagoa dela dirudi.

Salsa gauak. Burgoetako plaza toki egokiena ote den eztabaidan sartu gabe, bertan ikusi diren tal- deen maila benetan aipagarria izan da, eta Sanferminetako mu- sika eta girorik hoberenetako dastatu dute hara bertaratuta- koek, nahiz eta Udalak, hasieran, duda muda handiak erakutsi zi- tuen ekitaldi hauek antolatzerako orduan. Hori bai, jendetza izuga- rria izan da gauero, batzutan so- bera.

Riau-Riau. Aurtengo gai polemikoenak azkenean ez zuen ater- abide ofizialik izan, eta peñak eta alkatearen arteko negozi- azioak alferrikakoak izan ziren. Hala ere, eta Sanferminetan dena nahikoa bapatekoa dela —edo sortu dela— baieztatzeko, koad- rila bat elkartu eta inguruan zeuden guztiak bereganatu zi- tuen. Beste Riau-Riau bat egin zen —edo bi? edo hiru?—, eta aipatzekoa izan zen zenbait zine- gotzien presentzia bertan.

Barrakak. Gutxitan aurkituko da aurtengo barraka politikoek lortu duten giro ona eta toki apro- posagoa. Zabal-zabala, pilaketa- rik gabe, eta zentrutik ez urrun, ez omen da urtero horrelako auke- rarik izango, baina garbi erakutsi da kokaleku aproposa izanez ge- ro giro desberdina eta egokia sortzeko gai direla txosnak.

Paquiro. Arrosadiako torea- tzaileak garbi erakutsi zuen bere bigarren arratsaldean zezen onak



Sanfermin hauetan gertakari franko izan da, batzuk ezkutua- gokoak eta besteak ageriago geratu direnak, baina izan da denendako. Ze girotan ibili den, orduan eta arreta handiagoa paratzen zaio zenbait gau-

zari, eta besteei ez zaie apenas ga- rrantzia ematen. Gertatu den aipaga- rriena bildu dugu hemen: gertatu den hoberena, eta txarrena. Emaiza: ona. Festa politak eta 'lasaiak' izan bait dira aurtengoak.

Finean, giro ona

edo ez oso txarra ez direnak dituen gauza politikak egiteko gauza badela. Ez du izango aparteko tek- nika, ez eta maisu handiek duten sena eta artea, baina oso adoretu eta ausarta da gaztea.

Txaragak. Mutiko hauendako ez dago sari egokirik, ez behintzat sortzen du- ten giroa ordaintzeko adinakoa. Gaeuz, goizez eta arratsaldez, ez dago geldirik ego- terik beraiekin, eta festari be- netako arima eta esanahia beraiek ematen diote, batzuek, jaiaren arima zezenak direla esaten badute ere. Gainera, harritzekoa da erakusten duten gogo, adore, eta abilezia, ez bait dute nota bat ere txarki jotzen, ezta gaueko seieta izanda ere -hau idazten duena horren lekuko da-

Zenbait datu

| | |
|---|-----------|
| Jaurtikitako txupinazoak | 27 |
| Entzierroan zauritutakoak | 51 |
| Alkoholak eragindako toxikazioak | 57 |
| Navarrieriako iturritik eroritakoak | 5 |
| Harresietatik eroritakoak | 2 |
| Entzierroan ibilitako zezenak | 46 |
| Toreatzaileek jasotako belarriak | 14 |
| Festek iraun duten denbora (orduak) | 204 |
| Entzierroen iraupena (batazbeste) | 3,3 m. |
| Gauzatutako musika kontzertuak | 44 |
| Edarien salneurriak (batazbeste): | |
| freskagarriak | 200 pzta. |
| garagardoa | 250 pzta. |
| kafea | 150 pzta. |
| txanpaina | 400 pzta. |



TXARRENA

Barraketan hildakoa.

Sanfermin hauetako ger- takaririk tamalgarriena norbait leporatzen saia- tzeak ez dauka zentzu handirik, baina larunbat goizean gertatutakoak polemika ekarri beharko luke, sikiera berriro errepika ez dadin. Ba- tzueta gehiegikerien to- paleku izaten da Iruñea egun hauetan, eta ez da erraz inguraturik lo egin daitekeen bere onean da- goen pertsona bat, ez ba- da, izan ere, bere onetik aterata da- goela. Hala ere, makinak duen arriskua behin fro- gatuta —gidariak ez dauka ikusteko ahalmena alboeta- tik ezta atzetik ere—, kontu eta arreta askoz han- diagoz erabili beharko litzateke, batez ere lotan edota ahalmen guztiakin ez dau- denak ugari dire- nean.

Udaletxeko bal- koiaren gataz- ka. Urtero errep- ikatzen dute gerta- kari bera. Urtero

ateratzen dira ubeldurren bate- kin, hozkadaren batekin, edota prakak apurtuta, gorri gorriak, izerdi patsetan, emaitza berbera izateko: batzuk pozik paratu du- telako, eta besteak ere kontent, «behintzat oposizioa izan dute- lako». Urtero egiten dute beren gatazka, eta urtero lotsatzen dute beste asko. Hala ere, heldu den urtean ere errepikatu, errepikatu egingo dute 'numeritoa', horre- tan dudarik ez izan.

Baionakoei egindako mes- prezua. Zintzo-zintzo heldu zi- ren, urtero bezala, Baionako la- gunak Sanferminekin duten zi- tara, baina aurten, nonbait, alka- teak ez zuen beraiekin egoteko gogo handirik, eta abisaturik zeu- dela esanez, apartadara joatea deliberatu zuen gure Jaimek, ha- rrera ofiziala gerorako utzita. Iruñeko zein Baionako zinego- tziak zur eta lur, azkenean zeze- nen inguruan eta fino bat eskutan zutela egin zuten adiskidetasu- nerako urtero egin beharrekoak. Zinegotziak 'jauntxokeria' deitu zioten Jaimeren erabakiari, eta baten batek lotsa handiagorik sekulan ez zuela pasa adierazi zuen.

Zezenak. Adituek diotenez, zezenen indar eta aiur faltarena ganadutegi guztietan eta luzetik datorren afera bat da, baina aur- tongo zezenketak benetan txar- rarak baino txaragoak izan dira. Soilik pare bat zezenek gaudit- u dute gutxienezko maila, eta to- reatzaileak ez dira gauza asko egiteko gai izan. Hori bai, zeze- nplazan gauza politikak ikusteko ze- goen gogoak behar baino sari gehiago 'oparitu' zioten batzuei.

Navarrieriako iturrikoak. Ez da ezer bereziagatik, baina urte- roko balentria berezi hori erakus- ten dutenak burutik fanda daude. Gauza askoren premia behar dute izan hain era inozo eta zentzuga- bean euren burua arriskuan jar- tzeko, eta aurten ez da zauritu askorik izan! Gehienak atzerri- tarrak —estatubatuetakoak, hain zuzen—, beren jaioterrietan zer kontatu izateko plazerra ukatu ez badiogu nahi ere, ohar daitela DYA eta Gurutze Gorriko gai- xoei ere lana ematen dietela.

Entzierroko ibilbiderako makina. Berritasun handi gisa aurkeztu baziguten ere, azkenean ez zuen espero zen atarramendu- rik izan, eta arriskua areagotu baino ez zuen egin. Teoriaz, ja- boiaz garbitu behar zituen ka- leak, eta, bide batez, lehortu. Ho- rrela lortuko litzateke hain arris- kutsuak izaten diren irristak eta abarrak ebitatzea. Eta garbitu, garbitzen zuen tramankuluak, baina ez zuen asti sobera ongi lehortzeko, dela entzierroa segi- tuan hasten zelako, dela jende asko zebilelako tartean. Kontuak kontu, segituan konturatu ziren erremedioa gaitza baino txarra- goa zela, eta behizainen protestak tartean, azkenean beste azterketa hoberako uztea erabaki zen.

Sanferminen ondotik

Sanferminen ondotik

mintzoak

Argazkiak festaren lekuko


Hestak amaituta, atsedena hartzeko beta helduko zaio askori, bai hiritik alde egiteko bai bertan gelditzeko, igeritokietan zein guardasola duten tabernetan, gorputza 'zaintzen'. Denei geldituko zaizkie gogoan pasatutako egunak, zorabioa, lagunekin egindako parrandak. Egunak pasa ahala galduko dira goaren altzoan, eta beste urtekoekin nahastuko dira, hurrengoan zain. Esaten ohi da frankotan irudi batek mila hitzen balioa duela. Hemen bildu ditugunak ez dira ez hoberenak, ezta behar diren guztiak ere, baina hirian egon denaren zati bat badira, behintzat.




Ohizkoa bada ere, ezin kanpoan utzi betiko imajina, bakarrik hirurehun eta hirurogetabi egun falta direla gogoraziko diguna. Plaza bete-betean Joaquin Pascal zinegotziak txupinazoa botatzen duen unean, eguerdian. Behean, zorabioa. JOAQUE LACALLE



Zezenketak dira arima eta muina Sanferminetan, eta aurtengoen protagonista berezia zuten: Francisco Javier Martínez 'Paquiro', Arrosadiako toreatzailea. Ez zuen zorte handirik izan lehendabiziko saioan, baina bigarrenetan bi larri moztu zituen, eta lepoan eramanda ateratzen plazaetik. PATXI CASCANTE



Adierazpen handiren beharrik ez duen argazki ederra bezain izugarria. Bi garren entzerroan gertatu zen, Guardiola ganadutegiko zezenekin, eta Mercaderesko errebolta biak, korrikalaria zein zezena, irrist egiterakoan. Kamiseta txikitu bazion ere, ez zion adarkarik sartu, eta aurrera egin zuen gazteak, eskuan zuen argazki makina eta guzti. JAVI CAMPOS



Entzerroaren beraren irudia. Zorrikalaria, parez pare, batak besteari muzin egin eta laguntzaz, baina elkarri begira, zezenak izanda ere.

Festa askoren sinboloa: suak, gauaren beltzak kolorez tindatuko dituztenak. Iruñean ere izaten dira, sikiera festari atsedena emateko, eta hiriko burrunbak ahaztuta, zeruko zalapartez gozatzeko. JOAQUE LACALLE



OLARTIA Ihauterietan mutil usaian adiskidetu edo Elkarren agrados

● Egun, bizi naizen maitakideak eta hirurok ondoan adieraziko dizuedan aho bateko erabakia dugu gaur gauerako: nor bere aldetik aterako da eta goizeko bortzak aldean etxera itzuliko, zertara eta lagun berriren batekin denok alkarrekin urdekiro gozatzera. Ni mutil yuppiz edo gisako zerbaitez mozzoratu naiz —'Bederatzi aste t'ardi' izeneko pelikularen sekuentzia batzutan Kim Bassinger agertzen den antzera, hain zuzen (bibote eta guzti, nik uste)— eta arratsaldea aski hotza zenez, barne arropa ugari jantzi dut. Cadiz-en edo Tenerife-n banengo brasileira bero tentagarriz mozzoratuko nintzateke —beltzarana naiz; beraz, guziz egokia (total, ia larrugorri utziko nindukeen trapu pare bat eta kitto)—; baina, hotza zortzi hilabetez nagusi izaten den herri honetan nagoenez —elurra berehala dakarrela iduri du— arropa gutirekin joatearen kontua udarako beharko —udan bai nahikara arropa-gutitzen eta biluzten naitzela larria izerdi-zurrustak nahiz ur xortek diridizka dudalarik Eguzkiak, jendeaz eta mutilez oroz gainetik haragikeriara emana xarmant gozatzeko.

Eskaieretan nengoanean, deblauki, ea zenbat morroi behar nuen exteratu pentsatzera hasi nintzen: 'Bat, bi, hirur...? Beno bat bai gutienez; bi... balitezke... Hirur... sobera. Zenbat eta mutil gehiago izan, biluzgorritasunaren nabarmenetzea hainbat eta kilika-garriago zait agituko; beraz, izerditan blai, ene asebererako a zer nolako igurtzaldia eta zurrupaldia izanen ditudan!... Auskalo; agian, batere aurkitu ez eta etxera murturbeltz bihurtu beharko etxaldeak begiak zuloetarik aterazten dituzten neska ederrekin egonen diren artean. Ahalik eta maitale gehien, bai, on gehiago izateko moduan'.

—Agur, maitiak, ea nahi hainbat neskatxa guri gustagarri aurkituko duzuen!
—Zorte on, Olar! Izan oldar!
—Zuek garbiketa polita izan!
Lixiba agortzen bazaizue terrazan ontzi bat ziaigok. Adio!
—Ehiza on, potxola!
—Zirrara eginen diodan dos-tagarri zenbait eroriko duk, nahi t'ez.

—Ez oro ekar, gero; bertzenaz, neskarik ez kabituko!
—Lasai, motel, hirukote batekin aski izanen dut-eta!
Nik dakita zenbat ordu eman dugun halako egintzarekin amets egiten ezen kontua ez zen, ez, erreza: lagun berriei egi-egia erran behar genien etxera ailegatutakoan izu edo moskea eta duintaz joan ez lekizigun. Hortaz, lagun berriak nahirik etorri behar ziren, gurea bezalako lizun-egarri antisiatua ukan behar zuten. Neri ez zait inondik inora zail egiten mutilik aurkitzea polita bait naiz (polit harrapakaria lagunen aburuz); Tomasi ere ez, zozko oneko morroi bait da; ordea, Enekeri bai agitzen zaio neskasur aritzen den aldi oroz polita ez delako —itsusi ere ez, ez—; hala guziz, politasunaren ordeko, jatorrasun itzelaren jabe da —zer erremio gaurregungo edertasunari buruzko erizpideen arauerako ez bazara ingurukoek onar zaitzen nahi baduzu— eta nesken bereganatzen ongi baino hobe jakiten du entseiatzen den gauaren azken hondar—moda—rretan.

Karrikara aterea, ezkerretara jo nuen normalean ibiltzen naizen tabernetan sartzeko neholako asmorik ez nuen-eta: bertzelako girorik behar nuen, eginkizunaren burutzeko jenderik. Hartara, pub aldera abiatu nintzen, bertara orotariko jendea biltzen denez, ahalbide guziaz izanen nuelakoan eta, izan ere, bertako itzalpeetako batetan nahi bezalako fortuna zen: laur travesti alerakeri edan-solasean, 'Trakets higuigarrien batak ekin aitzin, ea kasurik eginen ditudan. Titi eta zakil, bapoi!', pentsatu nuen barran galdatu ondotik beha egon nintzaielarik. Edana hartu eta ordaindurik, ezagutzak egin eta plazerrak ez berantetsi gogoz hurbildu nintzen, 'Gabon'. 'Baita zuri ere', ihardetsi zidaten ohizko ahozkeria ezti kurtsiaz. 'Zuetaz fitatu naun eta proposamen bat dizuet'. 'Ui, moñoña, guk desho-neskeriak baizik ez ditiaugu laket; bertzenaz, hospa, hospa'. 'Des-honestak dituzue-eta!', bota nion zirikatu ninduenari. 'Baina, putak bazarete ahantzi, ordaindu gogorik ez bait dut'. 'Putak? Aditu, laguntso? Gu, puta, ote! Aizak, pollita, gu ez gaituk puta, ez izanen bagina hiri gaur dohainik sartuko geniake ziur zuku-zukutsu dituan bi zuloño horietan. Ezta hala, maitaok?'. 'Izanen ez du, bai!', baieztatu zioten gainerakoek. Ondotik, azaldu beharreko guziaz azaldu nien eta arras konforme agertu zitzaizkidanez, hona ekarri nituen bidean bat bertzearen jakin nahiak ginelarik. Laketzale suhar antzo, sei aldiz —lehen tirripitarrapata franko fite egia erran—, sei aldiz —alfer egotez nor da aberastu?— kurritu nintzen goro osoan —eta seigarren aldiko ororen ahoak gorputzaren koko egokienean nituen nere-neretako. Kurritu eta izorrikideka beren gustorako ezin ederkio txiztatatu. Ondoko bus-geltokiko tabernan goxoa eta elkarren agrados gosale eta auzoko zineman hamaika t'erdietan paratzen zuten 'Pottoka alu-zurrupatzalearen aho potrojalea' zeritzan filma ikustera joan ginen —bizi ez naizena dastatzeko parada ezin hobea—. Ni pottoka politena aktore nagusiari potroak zurrupatzen ari zitzaizkion bitartean, loak hartu ninduen. Lagunek hirurak aldean iratzarri ninduten —pelikula bi bider edo batek badaki zenbat ikusi ote zuten—. Itzarri eta jaikitzerakoan, paparra zipatua nuela ohartu nintzen. 'Zein arraio da ene gainean kurritu?', egin nien oihu lagunei. Bizikideak ziren kurritu; beraz, arazorik ez: aztoratu nintzen, benetan, amets ez amets izan nintzelarik noizean behin begiak iriki eta bi zaldi-zakiltzar luze ahizuri osoa botatzen ari zirela ikusi uste nuen eta. Alabade, zaldirik ez —zoerasti pelikuletan nahia-go— eta bai ordea etxalde kutunak, zeintzu bertze hartan ere portatu bai ziren, nahikara portatu!



Gazteendako Zokoa

Okil gibelnabarra

Dendrocopos leucotos
Oso urria Nafarroan
Harizti eta pagadi ditu
gustoko
Zuhaitzak dira bere in-
gurua



Benetako ondarea

Bere 25 zentimetroei esker Nafarroan bizi den okil handiena da. Burualdea gorria dauka arrak, eta beltza emeak. Bularraldea horria, zenbait marra beltz dauka, behelaldean arrosa kolore bihurtzen dena. Oso atzapar sendoa ditu, eta zuhaitzetik igotzean isatsaz ere baliatzen da.

Pirinioetan oraindik aurki daitezkeen espezie hau benetako ondarea da, gaur egun arte iraunduena. Bere elikadura zuhaitz zaharretan dauden intsektuak dira bereziki. Bere baso gogokoenak, fagadi eta hariztiak dira baina bere populazioa Nafarroan oso maldan behera dago, egokiak zaizkien biotopoak eta ingurugiroak oso urriak direlako eta espezieak duen espezializazioa ere oso handia delako.

Nafarroan Erronkari Garaian eta Kintoko basoetan bizi da, eta duela zenbait urte artean Aralarren ere aurki zitezkeen, Sakana aldean. Hala ere, 1.600 metroko altueran ere bizi ahal da.

Txofrakia zuhaitz zaharren egur ustelduan egiten du, eta emeak hiru-bost arraultz erruten ditu, hamahiru egunez. Ondoren, 25 egun inguruan egoten dira txorikumeak bertan.

Europar Suediatik Babieraraino aurki daiteke, eta baita hegoaldeko zenbait basotan ere.

Bizitzaren aldaketak

AINARA FERNANDEZ

Aitziber Bilboko neska lirain eta alai bat zen. Bai, nahiz eta betidanik bere gurasoek bizitza zaildu, inoiz ez zituen horregatik egun txarrak pasatu. Esaten zuenez, ez zuen uste haiek bere malkoak merezi zituztenik. Betidanik mirestu dudan pertsona zen, nortasun bikaineko neska.

Baina haurtzaro txarra pasatzen duzunean, gero betirako gelditzen zaizula esaten dute eta gainera inor ez da perfektoa, ezta Aitziber ere, nahiz eta hori bere lagunentzat ia sinestezina izan.

Bere gurasoen hezkuntza oso gogorra zen. Erlijosio hutsak, egunero elizara joan behar zuten bere eguneroko pekatuak konfesatzeko. Gainera, arrazista hutsak ziren, beltzei, txinatarrei edota ijitoei gorroto bait zieten. Beno, dena laburtzearen, XVIII mendeko pentsamenduak zituzten eta hori nahiko gazteak zirela kontutan hartuz.

Noraino ailegatu behar dugu XX mendean horrelako jendearekin? Galdera hau egunero egiten genuen Aitziber eta biok hondartzara joateko bidean. Gure gai interesgarriena zela zirudien, baina galdera horri erantzuna aurkitzean gure

arazoak, batez ere berarenak, konponduko zirela uste genuen. Hau errugabezia, behatz bakar batekin mundua konpondu ahal izango genuela usterakoan! Hain garrantzitsua zen guretzako galdera horren erantzuna...

Baina nola aldatzen garen denborarekin! Urteak joan, eta Aitziberren buruan ideiak argi zeudela zirudien, maiteminduzen arte. Eta nola ez, Aitziberrek beti gauza zailenak egin behar zituen, eta mutil beltzarran batekin maitemindu zen. Kontatu zidanean, gauza arrunt bat bezala hartu nuen. 'Beno, eta zer?'. Ez nion logikarik aurkitzen bere aurpegi tristea nere aurrean ikustean. Bapa-

tean, beldurtu egin nintzen. 'Agian zure gurasoen hitzak dira orain kontzientzian dituzunak? Zu, XVIII mendeko pentsamenduak zirela esaten zenuena? Mundua demokrazia, tolerantzia eta horrelako ideiekin hatz batez aldatu behar zuena, arrazakeriaren kontra baita ere, orain sentimenduak alde batera utzi behar dituzu zure kontran doan ideiekin batentzat?'

Galdera haiek egiten nizekin bitartean, gero eta beldur gehiago nuen, begietan ikusten nion zer nolako ikara zuen. Hori ez zen gure Aitziber, betiko neska alai.

Geroago, hortik bi hilabete-tara, Iruñera etorri nintzen bizitzera, Bilboko bizitza alde batera utziz: nere lagunak, ikasketak, eta bereziki, zen zena: Aitziber.

Baina ez zen hura nire Aitziber, aldatu zidaten beste pertsona baizik.

Donostira joan zen Aitziber izeneko ezezagun hori bere amodioa ahazteko. Zenbat hitz egiten duen jendeak, baina gero beraiek egin behar dutenean... nola aldatzen diren.

Neska jatorra da gaur egun: bere senarrarekin, medizina ikasketekin, eta bi semeekin jandantik.

Eta ni hemen, idazle pobrea, bakarrik oroipenak dituen...



BASAJAUN

Uf! Ez dakit zer gertatzen den uda honetan, baina bai neska ederrak ikusten ditugunak, ezta?

Horretaz pentsatzen ari nintzela aipatzeko gai bat bururatu zitzaidan. Emakumeek apaintzeko erabiltzen duten hainbat kosmetiko eta pote horiek ere badute bere istoriotxo beltza... bai, bai, horrela da. Nere ustez, hobereena produktu haiek baztertzea izango zen, baina tira, erabiliko direnez gero, goazen azaltzera nolakoa den arazoa.

Urtero milaka milioi gastatzen dira kosmetiko hauekin. Orain dela gutxi arte, animalietan frogatzen ziren, ondoren gizakumeari minik egin ez ziezaioten. Azkeneko bost urteotan, gauzak aldatu dira eta Euroapko enpresa ugari bere produktu ekologikoak, eta animalien gorputzetan frogatu gabekoak direla azaltzen dute.

Animali hauek, edozein motako frogak jasaten dute, guztiak batera, eta tortura eta jipoi handiak bailiran denak: itsuak gelditzen dira, larru minbiziak eta tumoreak sortzen zaizkie, eta baita beste gaixotasun batzuk ere. Hitleren estilo berbera.

Erabiltzen diren animalien artean, untxiak, arratoiak, kobaiak, txakurrak eta tximuak ditugu, besteak beste, jakina.

Arazo honen aurrean, zure gorputza metodo naturalekin zaindu beharra daukazu, dieta on bat eraman, haizea hartu... Presta itzazu zeuk zure produktuak, eta erosten dituzun horiek garantiren bat eraman dezatela, untxiaren logotipoa adibidez.

Animaliak kezkatu gauden zure laguntza beharrezkoa da. Besterik gabe, agur.



KAZKARROAN

Jenero Xumekoak

□ Kawasaki motorra eta M.K.X. kaskoa kontu-kontari, goizeko bostetan, ezponda batean, etzanda hain zuzen. Bizitza zapata errepresentatzaile bat dela iruditzen zait, Kawasaki. Eta oin bateko amodioa besterik ez du, inork bestea ebats ez ziezaioten. Guk berriz, bi oin ditugu. Hortxe sortzen da gozagabea. Zer deritzozu Kawasaki? Dena den, beste era batean planteatu daiteke afera. Anbulantzia etorri orduko mutiko gaixo honi oin bateko zapata ere sobratuko zaionez gero, eta zu, Ekialdeko motor abarrikatu bat, eta ni, Mendebaldeko kasko muturkatu bat izanik, ze axola luke orain amodioak, ifernuko ezponda honetan, munduko ardatza izan ezean? Ez dakit ulertzen didazun, Kawasaki.

JEREMIAS ERRO

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Esan
3. Ez zaila
4. (Bizk.) Gaziak
5. Banan-bana



1. Herri nafarra
2. Karta joko
3. Ohorezko tratua
4. Sorra
5. Bular muturrak



1. Herri nafarra
2. Barrez
3. Huescako herria
4. Jaurtiketa
5. Toka, badoa



Zaharrak Berri

Handi nahia, egonen hait gutirekin.

Handi nahiak, gutxi izaki.

Luzaide

Lemixiko haurtasuna eder, bigarna kiretsa.

Haur jaiotzen gara, eta zahar-tzaroan haur bihurtzen.

Aezkoa

Haginlariak: —

—Ez duzu ahoa horrenbeste ireki beharrik.

—Pintzak sartu beharko dituzu ba...

—Bai, baina ni kanpoan gelditzen naiz.

Bizi Bizian

Baztandarren Biltzarra, hola baikara

MATTIN KAPITANSORO / IRUNEA

Baztandar guztiak batuko lituzkeen festen ideia 1963an sortu zen Aralarrera egindako mendi irteera batean. Bazkalostean, uda horretarako zeuden festak komentatuz, bailara osorako eguna egiteko proposamena sortu zen, eta, segituan, izena: Baztandarren Biltzarra. Hor zeuden Paquita Oteiza, M^a Luisa Argineña, M^a Pilar Garmendia eta abar. Lehendabiziko urte hartan izugarritzko arrakasta lortu zen, eta bostehun bat mahaikide izan ziren bazkarian.

Egunak zekarren gero eta antolakuntza konplexuagoa hobeki eramateko, izen bera duen elkar-tea osatu zen 1977an, eta hortik aurrera, zenbait batzordetan banatuta, berak eraman izan duen egun honen ardura. Horretaz gain, urtean zehar ere beste zenbait ekitalditan hartu izan ohi du parte, eta azpimarragarriena Eguberrietako Hamabortzaldi Kulturala.

Biltzarren antolakuntzarako, esan bezala, batzordetan edo komisioetan banatzen da elkar-tea: bazkaria eta janlekurako batzordea, orga apainduen eta desfilearen batzordea, propaganda batzordea, artisauen batzordea eta apaingarrien batzordea. Bakoitzak bere lana burutzen du bi hilabete edo aurretik, eta denen koordinazioa elkartean bertan egiten da.

HAMAHIRU ORGA DESFILEAN Baztan osoko herriak biltzen dituen egun honen ekitaldirik azpimarragarriena, dudarik gabe, desfilea izaten da, eta aurten ere hamabi-hamahiru orgak hartuko dute parte, bailarako herri gehienetakoak. Taldeak osatzen dira herri guztietan, nahiz eta beti herriren bat edo bestek huts egiten duen. Benetako artelanak, bereziki gazteak arduratzen dira lan honetaz, Mikel Iriarte elkar-tekoak adierazi duenez. «Zenbait lekutan animatu behar da jendea karroza egitera, eta bestetan segituan




Baztango herri gehienek aurkeztuko dituzte orga apainduak.

osatzen dira taldeak baina esan daiteke herri gehienek beren karroza aurkeztuko dutela».

Bazkaria ere izan ohi da ekitaldi nagusienetakoa, eta aurten mila eta zortzirehun lagunendako prestatuko dute elkar-tekoak. Horretarako, lehendabiziko platerria enpresa batek egingo du eta gainontzekoa —mahaiak zerbitzatu, janariak prestatu eta abar— elkar-tekoak beraiek egingo dute.

Aurtengo kartela Mikel Urmeneta marrazkilariak egin du, horretarako urtero egiten den lehiaketa irabazi ondoren, eta ohizko 'Nafarroa. Euskalherria' lemari aurten 'Euskara, horrela baikara' erantsi diote.

Aurten ere, eta azken urteetan bezala, omendutakorik ere izanen da Baztandarren Biltzarrean. Irungo 'Meakako Adiskideak' izeneko dantza taldeak jasoko du elkar-tearen onespina, urte frankotan bertara azaldu izateagatik. Orobat, Maurizio Elizalde Arizkongo txistulari handia — eta urte askotan zehar festaren txistulari 'ofiziala' — zena ere omen-duko dute igandean.



Maurizio Elizalde txistularia zenaren falta somatuko da aurten. BAYO

Erreleboaren esperoan

M.K. / IRUNEA

Pasatako denbora latzak —errebindikazio biltzarrak, Goardia Zibila, Udalarekin gaizki ikusiak— ahaztuta ez badaude ere, garai lasaia bizi du orain Baztandarren Biltzarrak, baina gaitz batek jota dago, Mikel Iriartek azaldu duenez: indibidualismo handia bailara osoan, eta ez bakarrik festaren inguruan.

«Bakoitzak bere buruaz pentsatzen du —dio Iriartek—, eta indibidualismoa gero eta nabariagoa da gizartearen». Hori dela eta, antolakuntza lanak bakar ba-

tzen lepoan gelditu dira, eta hori nabariagoa egiten da gazteen artean. «Gero eta gehiago bestara besta egitera bakarrik joaten dira, baina ez dute parte hartzen antolakuntza lanetan. Agian ez dardelako lehengo kezka haiek, eta dena egin ematen zaielako, nabaria da ez dutela besta zerbait propio bezala sentitzen. Besta, ongi pasatzeko, eta hortaz aparte, deus ez». Horregatik, eta zenbait urte jadanik lanean, erreleboaren esperoan daude elkar-tekoak. «Guk hartu genuen bezala, ondokoek ere hartu beharko dute gure txanda».



Elizondo, Baztango hiriburua.

Pedro Esarte

historiagilea

Bihar larunbata ospatuko da Amaiurko guduaren 470. urteburua, bertako oroigarriaren ondok. Ekitaldia, Euskaria taldeak antolatutakoa, «Nafarroako askatasunaren alde odola isuri zuten azkenengo nafartarrei» ohorea emateko

da sortua, eta bertara ager daitezzen gonbitea egin zaie Hego Euskal Herriko lau diputazioko buruak, alkateak eta pertsonaia frankori. Pedro Esarte elizondarra, Euskariako partaidea bera, gai honi buruz zenbait artikulu plazaratuta dauka.

«Benetako historia idatzi gabe dago»

A. BARANDIARAN / ELIZONDO

EGUNKARIA.— Amaiurko gazteluaren errendizioa 1522an izan zen. Oroitarria 1922an eraiki zen, eta 1931n ezezagun batzuek bonba bat jarri zuten bertan. Hauek dira gertaeraren inguruan dauden data azpimagarrienak. Ez al dira urrunegi gelditzen Nafarroako gaurko gizarte eta abertzaleendako?

PEDRO ESARTE.— Nere ustez, historia berriro argitara emateak gaurkotasan handia dauka, historiaren bidez ikasten bait dugu gertatu zaiguna, geroan berriro errepika ez dadin. Egoera lehen bezelakoa da: bi estatu boteretsu eta nazio txiki bat. Kontutan hartu behar da garai hartan 9.500 espainiarrek osatutako armada eratu zela, eta frantziarrek ez zutelako laguntzarik eman, eta Nafarroaren konkista nafarren kalterako izan zen.

EGUNKARIA.—

Amaiurko batailari betidanik eman izan zaio abertzaleen artean 'azken guduaren' esanahia, Nafarroako erresumaren independentzia galtze prozesuan. Hala al da, edo mitologia sortu da honen inguruan?

ESARTE.— Amaiurko bataila ez zen azkena izan. Honen ondok, nortasuna galtzeak sortzen zituen ondorioagatik Hondarribiko errendizioa, eta Nafarroa Behereko galtzea izan ziren. Amaiurko batailaren ondok hiru edo lau inbasio izan zen bertan. Prozesu

guzti honetan nafarrei 'espainiar' nortasuna erantsi zitzaie, gero eta neurri handiagoan eta, aldiz, Amaiur defendatu zutenei 'frantziar' deitu zieten. Eta nik badakit aski ongi Amaiurko gazteluaren barruan zeuden guztiak nafarrak zirela. 'Frantziar' hitza erabili zen garai hartan gaur 'terrorista' hitza erabiltzen den bezala, eta Francoren garaian 'maki' hitza erabili zen bezala: kontra zeuden guztiak izendatzeko.

EGUNKARIA.— Eta zergatik eman zaio Amaiurko bataila honi horrelako sinbolismo eta esanahi berezia?

ESARTE.— Amaiurko batailari nik aurkitu diodan sinbolismoa zera da: argitara ematea espainiarrek erabili zituzten soldaduak eta nafarrok genituenak, eta alde-ratu. Espainiarrek bazekiten zen gudan aritzea, Andaluzia, Afrika eta Italian ibilitakoak bait


ziren. Nafarrek beren ondasunak defendatzeko

borrokatzen zuten. Horrela, Amaiurrek daukan sinbolismoa zera da: herri txiki batean dagoen gaztelu txiki baten borroka, armada inperial baten aurka. Eta gainera aurre egin zion.

EGUNKARIA.—

Nafarroako inbasio honetan ez zen, Amaiurkoaz aparte, apenas oposiziorik izan, eta soilik Tuterak egin zion aurre armadari, Noingo batailarekin batera. Zeintzu dira horren arrazoiak?

ESARTE.— Fernando Katolikoa ez zen, ez horixe, inozoa, eta izuga-



Pedro Esarte, Elizondoko bere etxearen aitzinean. ALBERTO BARANDIARAN

rrizko anbizioa zeukan inperioa osatzeko. Oposizioa izan zen, inbasioa 1512an izan bait zen, eta 1529ra arte ez zelako pakerik izan. Eta hori Nafarroa Beherea galtzearen truke.

EGUNKARIA.— Larunbateko ekitaldia Euskariak antolatutakoa da. Zergatik erakunde honek, eta zer esanahi eman nahi izan dio omenaldiari?

ESARTE.— Euskaria jaio zen Euskal Herriaren independentzia bultzatzeko ekimen guztietan parte hartzeko, eta Amaiurren horren alde borrokatu zela jakinik, nahikoa aitzakia da Euskariak gorapaitzeko. Baina errebindikazioa izateaz gain, gertaera historikoa da, eta bertan gure aitzindariak gure aberriaren alde

borrokatu zuten. Horregatik, erakunde guztiak gonbidatu ditugu.

EGUNKARIA.— Oroitarriaren lehendabiziko harria paratu zenean, 1920an, Hego Euskal Herriko lau diputazioak, Eusko Ikaskuntza, alkate batzuk, eta izen ospetsu asko agertu ziren alde, gero inaugurazioan horrelakorik gertatu ez bazen ere. Gaur egun horrek ia ezinezkoa dirudi. Galdu da Amaiurren esanahia edo dauden desberdintasunek hautsi dute lehengo batasun hori?

ESARTE.— Nik uste dut abertzaleen arteko batasuna oraindik badagoela, baina gaur egun komunikabideen boterea izugarrikoa da. Sistemak onartu eta markatzen duen ildotik ez doan guztiak

porroteko bidea darama. Hala ere, eta egoera desberdina izanda ere, gogoak antzekoak dira jendearen artean.

EGUNKARIA.— Ekainaren 28an Noingo batailaren oroitzapena ospatu zen, eta oroigarri bat ere aurkeztu zen. Horrelako gerta-kari historikoetan aritzean eta gogora ekartzean, ez al daitezke ahantz egungo egoera eta egungo arazoak? Ez al dago sinbolismo hutsean gelditzeko arriskua?

ESARTE.— Nik uste dut ezetz. Beti esan da herriek memoria historikoa izan behar dutela, eta historia etengabe errepikatzen da. Amaiurko bataila izan zenean, nafar batzuk inbasorearen alde azaldu ziren, baina ez zuten beste biderik beren ondasunak ez galtzeko. Gaur egun nolabaiteko indeferentzia dago, baina hori edozein momentuan alda daiteke, presioa oso gogorra bait da.

EGUNKARIA.— Baina gaur egunean, historia oso urrun ikusten da, eta benetan jendearendako interes duten gauzak askok zehatzagoak eta errealeak dira.

ESARTE.— Nik egin ditudan arkituluekin topatu izan dituzt guzti honetaz deus ez zekitenak, eta harritura daude. Orduan, nere asmoa guzti hau ezagutaraztea da, bere muga guztiekin, benetako eragina izan dezan.

EGUNKARIA.— Zer espero duzue ekitaldi honetatik?

ESARTE.— Gure ilusioa da Nafarroako benetako historia plazaratzea, oraindik idatzi gabe dagoelako. Bi armaden arteko oroigarri buruzko datuak ez ziren ezagunak, eta nik argitaratu ditut. Hau hobeki ezagutzen badugu, gehiago estimatuko dugu gertu daukaguna. Izorratzeko, hor daude besteak.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

